+

Santuario de Aránzazu
OÑATE
(Guipúzcoa)

1953, Iraillak 29

Lafitte, Apaiz jaun agurgarriari
Ustaritz-era

Itzal aundiko jaun ori: Agur.

Itz bi egin nai dizkizut, atera-berri duzun "Lexique français-basque" ori lenbailen erosi nai nukela esateko. Emendik orra dirua bialtzeko, ordea, eztut erraztasunik, eta biderik onena onako au izango litzake, nere ustez: Euskaltzaindiko batzarrera urrengo zatozenean, zuk neri liburua eta nik zuri dirua ematea, alegia. Baiña emen pesetarik baizik ez-

paituzu, jakiñarazi zadazu, arren, zeinbat pezeta zor dizkizudan liburu-ordez. Lan benetan gaitza, ardura aundikoa ta baliotsua zuk eta Fournier jaunak burutu dezuten ori! Ekin eta jarrai!

Zurea

Fr. Luis Villasante o.f.m.

P.D. "Gure Herria" aldirokoaren suskripzioa ordaintzeko ere zurekin konpondduko naiz.

Santuario de Aránzazu
OÑATE
Guipúzcoa

1953-ko Azaroaren 5-an

Lafitte Apaiz Jaun agurgarriari

Ustaritz-en

Ene Jaun ori: Joandako ostiralean egin nuen Donostiko ostera jakiña. Zerori ere an azalduko ziñalakoan ninjoan, eta gure sal-erosiak -aldez aurretik itzegin bezala- an zertuko genitulako ustearekin. Damuz, zu etziñan azaldu. Orduan Dassance jaunari ordaindu nizkion bai Gure Herria-ren urte-saria eta bai zure iztegiarena ere. Beraz, iztegi ori edo postaz igorri edo urrengo Donostirat zatozenean ekarri egin zenezake.

Agindu zure zerbitzari oni

Fr. Luis Villasante o.f.m.

+

Santuario de Aránzazu
OÑATE
Guipúzcoa

1953'ko Azaroak 16

Lafitte euskaltzaiñari

Ustaritz'en

Ene jaun agurgarri hori:

Jasoko zendun, noski, orain dela egun batzu igorri nizun arako karta hura. Gaur berriro iskribatzen dizut orain esatera noakizun hau zuri jakin-arazteagatik, alegia: Aita Imanol Berriatuak (Bizkaiako Forua-n dugun Kolegio baten zuzendaria da berau) zure Hiztegiaren bi exemplare erosi nahi lituzke eta liburuok ordaintzeko dirua neri eskuan eman dit. Beraz,

Euskaltzaindiaren urrengo batzarrean nik diru hori emango dizut eta zuk ekarri zurekin liburuok (bat Arantzazurako eta bi Tornarako), edo nahiago izate ezkero, postaz bidali.

Har zazu, Jaun horrek, nere oniginahiaren agiria. Oremus pro invicem.

Fr. Luis Villasante, o.f.m.

Jhs

A/16

Santuario de Aránzazu
OÑATE
Guipúzcoa

1955 ko Iraillak 20

Lafitte Jaun apez agurgarriari

Itz soil bat onako mandatu au zuri jakinarazteko, alegia: Aita J. Berriatuak "Kattalinen Gogoetak" erosi nai luke. Beraz, urrengo Batzarrera zatozenean ekarri, otoi, ieki bat eta nik artuko dizut, zuri eskura pagatuz. Edo naiago baduzu, igorri zaiozu zuzenean postaz Aita berari liburua; ona emen adressa: R.P. J. de Berriatua, Conven-

to de PP. Franciscanos, Bermeo (Vizcaya), Es-
pagne:

Onenbestekin artu zazu nere agurrik beroena.

Fr. Luis Villasante O.F.M.

IN SPLENDORE ORTUS TUI

SANTUARIO DE ARANZAZU
OÑATE (Guipúzcoa)

1957ko agorrillaren 24an

Lafitte jaunari

Atzo eldu nintzen onera, onik eta pozik, alde ortako franco xehetasun atxeman ondoren. Eta zuri, eta Ustaritzeko seminarioaren buru egiten duenari, eta ezagun guziei eskerrak eman nahi dizkizut.

Onera etortzean jakin dut aki-

tzeko Apezpikua izan dela emen.

Bizkaierazko ixtorio bat igortzen dizut, erriak erabiltzen duan josbera (sintaxis) eta gure idazleena zein diferent diren ikus dezazun. Ixtorio ori neure lengusiña baten aotik itzez-itz artua dut. Begoña de Ibarrola du izena, eta Bizkaia barreneko alaba da. Bere aita zenaren ezpaiñetan ipintzen du ixtorioa. Titulua bakar-bakarrik jarri dut nik zuen euskaran.

Mila esker, bada, jauna, eta berriz ikusi arte

Fr. Luis Villasante o.f.m.

SANTUARIO DE ARANZAZU
Teléfono: 7-81-72
OÑATE (Guipúzcoa)

1960 ko Apirillaren 4 an

Lafitte jaunari

Ustaritz

Heldu da nere eskuetarat zuk enetzat bidalitako gutuna, Héguy,Diharassary,Arbelbide eta Lapeyreren xehetasunekin. Mila esker, jauna.Zure laguntzari eskerrak ba-noha aitzinat nere lanean.XIX garren mendeko idazle-lerroa osatu dut jadanik ~~jadanik~~:mendiez bertzaldekoak ba-ditut hogoitik gora mende hortakoak eta naiko edatsuki estudiatuak. Orain XX garren mendekoak,bizi direnak alde bat utzirik,zeintzuk uste duzu behar lirakela sartu? Etchepare eta Barbieren xehetasunak ba-ditut;Héguy ere bai. Oxobi-ri buruz agertu al da zerbait? Aita Lhandezaz ere entzun ditut bi mintzaldi:bat zurea Ustaritzen eta bestea Narbaitzena Bayonan,bainan eztakit argitaratu othe diren. Mgr.St.Pierren berriak ba-ditut Gure Herrian.Bertze izenik aaztutzen bazait gure mende huntan aiphagari denik,jakinarazi othoi neri eta hoiezaz xehetasunik bialtzen badidazu, hainbat hobe.

Uste dut ikusiko zenduela hunezkero gure Aita Iturriak ateratzen duen "Goiz-Argi" laborarientzat. Entzun dedanez,eder-

ki ari da zabaltzen Gipuzkoan.

Zurea

Fr Luis Villasante o.f.m.

Aste Saindu huntan, Jainkoa lagun, Iratzederren Pasionea emango da Arantzazun eta Donostiako Radioak zabalduko du. Ostiral Sainduz gaueko amarretan.

St Pierre, Larrenguine – P. [illegible] (Bas. u,
Espil –
[illegible] Jean [illegible]
Mme Adéma

IN SPLENDORE ORTUS TUI

SANTUARIO DE ARANZAZU
OÑATE (Guipúzcoa)

1960 ko Garagarrillaren 17 an
Lafitte apez jaunari
Ustaritzera

Jaun agurgarria:

Barkatuko didazu, baiña berriz ere natorkizu eske, fraide-gisa. Ibilli naiz "Gure Herria" aldizkaria goitik-behera iraultzen, "Oxobi" zenari buruz dato billa, bainan eztut deus aurkitu. Bakar-bakarrik itz murritz batzuk hil zelako berria emanez. Jaun hori, uste dudanez, 1957 an hil zan eta Arrangoitzeko erretore zan. Agertu al da iñun mintzaldiren bat edo artikuluren bat bere lanei buruz? Igorriko bazenidake bere bizitzako berri-puxka eta bere euskal-lanen zerrenda estimatuko nizuke. Oraintxe ari naiz euskal literaturaren nere istorioa bukatzen. Hogoigarren mendean, hil direnen artean, zeintzuk dira zuen euskalerri hortan, zure ustez, aipatzekoak? Barbier, Hegus, Etchepare, Lhande, Landerreche, Oxobi, Lacombe, Constantin, Gavel. Bildur

naiz geldituko ote den jaun handiren bat sarthu gabe ezjakiñez,eta orregatik jotzen dut zugana iritzi-eske.

Emengo Aita Guardianak esan dit zurekin batean egon zela bazkaltzen eta jakin-arazi zizula nola emen Arantzazun,heldu den abuztuan, izango dugun eskual bilkura bat fraideen artekoa,eta etorri nahi baduzu ,gomitaturik zaudela.Aurten betetzen dira ehun urte gure Probintzia (Kantabriako frantziskotarren Probintzia) pizberritu zela,eta beste bilkuren artean,bat antolatu nahi dugu eskuarari buruz,emen Arantzazun,lau egunekoa:9-12 août:Frantziskotarrak eta eskuara izango da gaia.Ni naiz kongresu orren zuzendari.Pozik ikusiko genuke zu eta beste norbait zurekin ortik etorriko balitz,bertzerik ezpada mendiez bertzaldeko mintzoa aditua izan dedin gure artean.Orko eskoletan egin nahi duzuena edo egiten duzuena,elizetan egiten dena,zure astekari horren gainean:edozein horrelako gaia izango litzake on.Egun horietako ostatua gure kontura izango dela,erran gabe doha.

Aitzinetik igortzen dizkitzut eskerrak,jauna.Oxobiren berriak lenbailen nai nituzke,ahal balitz.

Fr Luis Villasante o.f.m.

IN SPLENDORE ORTUS TUI

SANTUARIO DE ARANZAZU

OÑATE (Guipúzcoa)

1960 Uztaillak 9

Pierre Lafitte jaunari

Milla esker, jauna. Eskuratu nituen zure orrialdeak Oxobi-ri buruz. Nik eskatu nizuna baino ere gehiago igorri didazu. Ain ederki dauden ezkero, nere libururako baliatu ondoren, Euskaltzaindiko "Euskera"-n ematea merezi dute, ene ustez. Beraz, zuk eragozpenik ezpadidazu jartzen, urrengo bilkuran Alfonso Irigoyen-i eramango dizkiot, agerkari ortan atera ditzan.

Etorriko al zera dagonilleko gure kongresu txikira? Mendizalea bazera, atseden-gisa egun batzuk emen pasatzeko toki ona duzu au.

Bertze gauza bat. Bein baino gehiagotan ibilli gera esaten emengo euskaltzale batzuk zein zaila den alde ortako idazleen liburuak eskuratzea. Eztakigu non diren salgei, emen ezta bihirik

ikusten, eta Arantzazuko liburutegirako nahi genituzke erosi. Barbierrenak, Etcheparerenak, Oxobirenak, Les Meilleures Pages de Mgr. Saint-Pierre, zureak... Etorriko baziña eskualdun kongresura a ze loria liburu batzuk ekarriko bazenitu! Guk emen ordainduko genizuke oien balioa.

Eta milla esker berriz ere danagatik

Villasante

Arantzazutik,1961 ko Martxoak 28

Pierre Lafitte jaunari

Jaun agurgarria: Lehenik mila esker zure astekarian Ama Sorazuz atera zenuen artikulu ederrarengatik.Liburuxka hau polliki ari da saltzen.Gipuzkoan bederen zabalduko dugula uste dut.

Joan den udaran badakizu nola izan genuen Eskual Biltzar bat hemen Arantzazun eta zu ere gure artean izan ziñen.Orai orduko lan guziak azaltzera goaz gure arteko errebista batean."Cantabria Franciscana" izena duen errebistan (fraideen artean bakar bakarrik zabaltzen da).Zure hitzaldia magnetofonean hartu izan zan;eta ahal izan dudan moduan aldatu dut paperera eta hor igortzen dizut ikus dezazun. Mila uts eta makur izanen dira segurik.Ikus zazu, otoi, eta zuzendu nahi duzun guzia eta gero itzuli zadazu mesedez,imprentara bialtzeko.Ikusiko duzu eztagoela osorik.Nik eztakit zer gertatu zen,baina zinta ustegabean ixildu egiten da azken orriko toki ortan;emen bialtzen dizudana bertzerik eztago hartua.Jarri zaiozu,bada,segida eta azken itzak.

Lan guziekin errebista ori azaldu dadinean,bialduko dizut zenbakiren bat,oroitzapen bezala.Eta eskerrik asko. Zurea

Fr Luis Villasante

Prantzisko Deunaren
Otoitza

—

Jauna, pake-eragille biurtu nazazu.
Gorroto-tokian, maitasuna jarri dezadala.
Oker-tokian, barkazioa.
Asarrean, alkartea.
Ez-jakiñean, jakintza.
Gezurrean, egia.
Zalantzean, fedea.
Etsipenean, itxaropena.
Illunpean, zure argia.
Atsekabean, poxa.

Zorionak
Eguberri ta
Urteberrietan!

Praille Prantziskotarrak
~~TOLOSA~~

Arantzazu 1/1/1968

Milla esker igorri didazun Oihenarteren lan berriagatik. Aurre-tik jarri diozun sarrera bikaiña da, mardula eta xehetasun jakin-garriz betea. Maisu baten lana, noski. — Aurkitu al duzu beiñola aipatu nizun liburuaren arrastorik? "Aranzazuco misterioa", bertsoz egiña eta lapurdieraz agertu zena? Vinsonek dakar beronen berri, baiña nik ez dut sekula ikusi. Zuretzat interesgarria litzake.

Villasante

EUSKALTZAINDIA
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE
Ribera, 6 - Teléfono 21 27 45
BILBAO-5

1971, ekainak 16

Pierre Lafitte jaunari
Ustaritz

Jaun agurgarri eta adiskide maitea:

Gaur Euskaltzaindiko idazkari ordea (Lizundia) enekin izan da hemen gure aferak tratatzen. Eta pentsatu dugu on litzakela Beskoitzeko egunaren bezperan aditz batzordekoek bilera berezi bat hor egingo bazenukete (larunbat arratsaldez edo..., Baionan beharbada, "Musée Basque" delakoan). Batzorde hau, nik dakidanez, ez da sekula bildu, eta Beskoitzeko egunaren aitzakiaz parada ona izanen da hortarako. Behintzat mordoska polita, bai hortik eta bai hemendik, elkarrekin bildu ahal izango zerate.

Lizundia jaunak egingo dizkitzue deiak batzordeko denoi. Berak esan didanez, bera ere joanen da aurretik zurekin egotera (ahal badu, behintzat).

Zeuen bilera hortan bi puntu dituzute aztertu beharrekoak:

Lehen: Aditz batuaren sariketarako hartu diren lanen aztertzea, eta saria nori eman behar zaion erabakitzea.

Bigarren: Aditzaren batasuna nola egin ahal izango den estudiatzea.

Lehenbiziko puntua erabaki beharra dagoela uste

dut,sariketaren epea bete denez gero.Bigarrena ere nahi dute hemen batzuek lehen bai lehen erabaki dedin.Baina nik ez dakit gauzak hortarako aski onduak diren. Mitxelena jaunarekin ere kontatu beharko litzake.Dena dela,zeuek ikus.

Aita Iratzeder-en anaia hemen da,bakantza egun batzuk ematen.

Zure zure

Fr L. Villasante

SANTUARIO DE ARANZAZU
Teléfono: 78-11-72
OÑATE (Guipúzcoa)

azaroak 14,1973

Pierre Lafitte jauna
Ustaritz

Jaun agurgarri eta adiskide bihotzekoa:

Lekeitiotik itzultzean jaso nuen zure eskutitza,Baionako eritegian zinela esanez.Harritu nintzen,ez bait nekian ezer.Baina luzaz ez zarela hor egonen diozu,eta hargatik Ustaritzera igortzen dut hau.Ia lehen-bai-lehen sendatzen zaren eta berriz ere gure artean ikusten zaitugun.

Lekeition ongi egin ziren gauzak.Meza herriko elizan,batzarrea herriko etxean,eta bazkaria.Batzarrean Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia egin zuen Erkiagak,eta ihardespena Juan Gorostiagak.Euskal irakasle tituluak banatu ziren (jende gazte asko etorri zen hori jasotzera).Olerki sarien dirua ere irabazleei eman zitzaien.Egualdia izan zen kaskarra.Eta mugaz horko aldekorik ez zen azaldu.Dena dela ,egun ederra izan zen. Izan ziren txistulariak,dantzariak,haur kantariak eta abar.

Ongi izan zaitezela nahiz,zure

Fr L. Villasante
ofm

SANTUARIO DE ARANZAZU
Teléfono: 78-11-72
OÑATE (Guipúzcoa)

Apirilak 11,1976

Pierre Lafitte jaunari

Ustaritz

Jaun agurgarri eta adiskidea:

Badakizu nola Ministerioan liburuxka bat nahi duten argitara Euskaltzaindiaz. Hor, beste gauzen artean, kondaira pixka bat ere egin beharko da: Euskaltzaindiari buruzko asmuak noiztikoak diren eta abar. San Martinek zure fitxa bat eman zidan, eta bertan euskal Akademia bati buruz mintzatu direnen artean izen hauk ematen dituzu: Darrigol, Arbelbide, Hiribarren eta Joanateguy. Arbelbideri buruz topatu ditut xehetasunak Euskera gure aldizkarian, lehen zenbakian. Erro euskal apologistaren obrak ere irauli ditut, zerbait aurkituko nuelakoan, baina ez dut deus ikus. Beste hiru jaun hoiek non mintzo diren hortaz ba ote dakizu? Estimatuko nizuke esatea, delako liburuxka hortan aipatzeko. Eta besterik baldin badakizu, berdin. Eta mila esker aitzinetik.

Hilabete huntako batzarrea Gasteizen egiteko zen, Apraiz jaunaren omenez. Baina hunen omenaldia atzeratu egin da. Beraz batzarre arrunta izango dugu Donostian, apirilaren 30ean.

Izan ongi, jauna. Har zazu ene estimazioaren ageri zintzoa

Fr L. Villasante

SANTUARIO DE ARANZAZU
Franciscanos
Teléfonos: 780951-780797
OÑATE (Guipúzcoa)

1982, Otsailak 27

Pierre Lafitte jauna

Uztaritzen

Adiskide bihotzekoa:

Uste nuen atzo ikusiko zintudala Euskaltzaindiko batzarrean;baina konprenitzen dut,bestalde,egualdi zakar hauekin ez agertzea ere. Iruñean bazkaldu genuenean mintzatu ginen pixka bat Lavieuxville-ren bigarren Katiximari buruz.Jon Bilbaok bere Bibliografian dio (berria nondik hartu duen esan gabe) Haroztegi delako batek jarri zuela euskaraz.Ba ote dakizu zuk horretaz zer- bait? Nik badut,gainera,Mogel-ek bizkaierara egindako itzulpen bat (argitaragabea).Ene asmoa da,denboraz,"Lekukoak" bilduman bi-biak argitaratzea,Lapurdikoa eta Bizkaiko hori.Baina xehetasun zenbait jakin nahi litzateke frantsesezko originalaz,Lapurdiko itzulpenaren egileaz eta itzulpen honek izan duen arrakastaz,etab.

Horretzaz Euskaltzaindiko batzarrerako egingo ba- zenu txosten bat,hori izango litzateke hoberena.

Lapeyre-ren liburua laster agertuko da "Lekukoak" hortan. Inprimeriako frogak helduak dira.

Ez dakit ikusi duzun, baina Fontes Linguae Vasconum aldizkarian bi artikulu agertu ditut, perpaus kausalei buruz, zuri dedikatuak.

Beste gabe, bihotzez

Fr. L. Villasante
ofm